

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2009	R22/2011	2011/09/27	Nafarroako Foru Erkidegoa	Gipuzkoa Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

R 22/2011 ebazpena
05/2009 espedientea

Gasteizen, 2011ko irailaren 27an, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomi Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada (lehendakaria) eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese kideekin, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Nafarroako Foru Erkidegoko Zerga Administrazioaren aurka planteatutako gatazkari buruzkoa; administrazio bietatik zein den eskumenduna (ENTITATEA 1) S.L. (IFK: ----) entitateari 2008ko uztailaren 31ra arte –orduan aldatu zuen egoitza soziala Gipuzkoatik Nafarroara– egindako eragiketen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren itzulketa edo konpentsazioa egiteko.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatu zuen 2009ko ekainaren 23ko idatziaren bidez –ekainaren 24ko sarrera erregistroa Arbitraje Batzordean– eta 2009ko uztailaren 2ko idatziaren bidez osatu zen –uztailaren 3an eman zitzaion sarrera Batzordean–.

2. Espedientetik, honako aurrekari hauek ondorioztatzen dira:

1. (ENTITATEA 1), S.L. entitateak (IFK: 895057238) (aurrerantzean, “entitatea”), 2008ko ekainaren 9ko Batzar Orokorrean hartutako erabakiaren arabera (Gipuzkoako Foru Aldundiaren idatzian, erabakia 13koa dela adierazi da, baina okerra da, egun horretan eman zelako ziurtagiria, baina erabakia beste egun batean hartu zelako), erabaki zuen bere egoitza soziala Nafarroatik Gipuzkoara eramatea eta, aldaketa horren ondorioz, Balio Erantsiaren gaineko Zerga Gipuzkoako Foru Aldundian ordaintzen du, Estatuaren eta Euskadiren arteko Ekonomia Itunaren, 2002ko maiatzaren 14ko 12/2002 Legeak onartutakoaren,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2009	R22/2011	2011/09/27	Nafarroako Foru Erkidegoa	Gipuzkoa Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

27. Bat hirugarrena eta 43. Zazpi artikuluetan aurreikusitakoaren arabera. Batzar Orokorren erabaki hori eskritura publikoan jaso zen 2008ko ekainaren 17an eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatu 2008ko abuztuaren 1ean.
2. Entitateak 2008ko ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoetako –2008ko uztailaren 31ra arte egindako eragiketa guztiengatik– BEZaren likidazioak Nafarroako Ogasunean aurkeztu zituen, 67.299,42 euro itzultzeko emaitzarekin. Halaber, entitateak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuan aurkeztu zuen 2008ko hirugarren hiruhilekoaren BEZaren aitortpena, 2.648,92 euro ordaintzeko emaitzarekin –eta ordaindu zuen–, merkataritza sozietateak 2008ko abuztuaren 1etik aurrera egindako eragiketak soilik kontuan hartuta.
 3. Nafarroako Ogasuneko BEZaren ataleko buruak, 2009ko urtarrilaren 21eko ebazpenean, itzulketa eskaera ezetsi zuen eta 2008ko hirugarren hiruhilekoaren aitortpena baliogabetu, bere ustez ez zelako administrazio horren eskumena hiruhileko horretako zerga ordainaraztea.
 4. Nafarroako zerga administrazioak ez zuenez eskatutako saldoa itzuli, entitateak idatzia aurkeztu zuen 2009ko urtarrilaren 30ean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Departamentuan, eskatuz 2008ko hirugarren hiruhileko zergaren aitortpena aldatzeko, hasieran Nafarroan aitortutako eragiketak gehituta eta bigarren hiruhilekoaren amaieran bere alde zuen saldoa hara eramanda, horrela aitortpenaren emaitza 64.614,50 euro izango zelarik bere alde, eta ez 2.684,92 euro ordaintzea.
 5. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko diputatuaren 2009ko apirilaren 21eko Foru Aginduaren bidez –2009ko apirilaren 29an jakinarazi zitzaion Nafarroako Gobernuari–, aitortu zen Gipuzkoako Foru Aldundiak ez zuela eskumenik entitateak eskatutakoa egiteko, alegia, 2009ko hirugarren hiruhilekoari dagokion BEZaren aitortpen-likidazioaren aldaketa onartzeko.
 6. 2009ko ekainaren 15eko idatziaren bidez, Nafarroako Ogasuneko zuzendari-kudeatzaileak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumen ezaren aitortpenaren hartu

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2009	R22/2011	2011/09/27	Nafarroako Foru Erkidegoa	Gipuzkoa Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

agiria eman zuen eta, horri erantzunez, adierazi zuen Nafarroako Ogasunak ez duela eskumenik entitateak helbidea Gipuzkoara aldatu zuen arte pilatu zuen bere aldeko saldoa itzultzeko.

3. 2010eko abenduaren 20ko bileran, Arbitraje Batzordeak erabaki zuen gatazka hau izapidetzeko onartzea eta Nafarroako Gobernuari jakinaraztea.

4. 2011ko urtarrilaren 25ean, Nafarroako Gobernuak idatzia igorri zion Arbitraje Batzordeari –urtarrilaren 27an eman zitzaion sarrera– eta, bertan, honako hau baieztatzen zuen: bat, Itunaren Arbitraje Batzordeak ez du eskumenik Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Zerga Administrazioaren artean sor daitezkeen gatazkak ebazteko, adieraziz, amaitzeko, gatazka hau administrazioarekiko auzibidean konpondu beharko litzatekeela, nahiz administrazioek sustatu nahiz, adibide gisa, gatazka negatiboa balitz, partikularrek sustatu; bi, Itunaren Arbitraje Batzordeak eskumenari uko egin dionez, ez da arrazoitzen Nafarroako Foru Erkidegoak gatazka eragiten duen gaiaren inguruan duen jarrera; eta hiru, aurrekoa alde batera utzita, gatazka hau eragin zuen arazoa ebatzi da, Foru Erkidegoko zerga administrazioak itzuli baitizkio (ENTITATEA 1) S.L. entitateari Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion zenbatekoak –2008ko bigarren hiruhilekoa barne hartuta– nahiz urte horretako hirugarren hiruhilekoan, helbidea aldatu zuen arte, egindako eragiketen inguruko zenbatekoak.

5. Espedientea amaitu eta helarazi zenean, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazioak egin zituen 2011ko maiatzaren 3ko idatziaren bidez –hurrengo egunean eman zitzaion sarrera– eta Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuak eta (ENTITATEA 1) S.L.k ez zuten alegaziorik egin.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Arbitraje Batzordeak erabaki beharrekoa da zein administrazioak duen eskumena (ENTITATEA 1) S.L.k 2008ko uztailaren 31ra arte –egun horretara arte izan zuen egoitza fiskala Nafarroan, 2008ko abuztuaren batean aldatu baitzuen egoitza soziala Gipuzkoara– egindako eragiketen ondorioz 2008ko hirugarren hiruhilekoari dagokion BEZaren aitortpen-likidazioa –67.299,42 euro itzultzea da emaitza– kudeatu, likidatu eta biltzeko.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2009	R22/2011	2011/09/27	Nafarroako Foru Erkidegoa	Gipuzkoa Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

2. Hala eta guztiz ere, auzi hori aztertu aurretik, Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumenik ez duenaren inguruan Nafarroako Gobernuak aurkeztutako alegazioa aztertu behar da; honako hauek dira argudioak:

1. Ez Hitzarmenak ez Itunak ez dute biltzen Arbitraje Batzordeak Euskadiko lurralde historikoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko gatazkak ebatz ditzaketenik.
2. Kontuan izan behar da Hitzarmenak nahiz Itunak Estatuarekin duten alde biko izaera eta horien artikuluetan ez dagoela lurralde historikoen eta Foru Erkidegoko zerga administrazioaren arteko lotura edo harreman "horizontalik". Horrez gain, Hitzarmenak Nafarroan egiten duen bezala, Itunak arautzen ditu Estatuko Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko –osotasun gisa hartuta– administrazioaren arteko finantza eta zerga harremanak. Barnean lurralde historikoak egoteak ez du harreman horien izaera lausotu edo desbirtuatu behar.
3. Egungo arauak eragiten dute Hitzarmenaren eta Itunaren arbitraje batzordeek ezin ebatzi izatea Euskadiko lurralde historikoen eta Foru Erkidegoaren arteko gatazkak, horien eskumenak kaltetu gabe. Ildo horretan, baieztatzen du Itunaren Arbitraje Batzordeak gatazka hau ebaztea Nafarroaren zerga eskumenaren inbasio guztiz bidegabea izango litzatekeela. Horrez gain, Nafarroa ez da autonomia erkidegoa, foru erkidegoa baizik, eta desberdina da.
4. Itunak foru aldundiek autonomia erkidegoen (eta ez foru erkidegoaren) aurkako gatazkak aurkezteko aukera emateak ezin du Itunaren eta Hitzarmenaren funtsezko printzipioen aurkakoa izan: Euskadiren eta Estatuaren arteko finantza eta zerga harremanen erregulazio bilateral eta eskusiboa, alde batetik; eta Nafarroaren eta Estatuaren artekoa, bestetik.
5. Hitzarmenaren 51.1.b) artikulua nahiz Itunaren 66.Bat.a) artikulua errealitate juridikoak ezartzen duen ildoan interpretatu behar dira, eta errealitate horren oinarria da ez Hitzarmenetik ez Itunetik ez direla ondorioztatzen Euskadiko lurralde historikoen eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko harreman horizontalak.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2009	R22/2011	2011/09/27	Nafarroako Foru Erkidegoa	Gipuzkoa Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

6. Hitzarmenaren eta Itunaren akordio izaerak eskatzen du, asmoa bada arbitraje organo batek ebaztea lurralde historikoen eta Foru Erkidegoaren arteko zerga gatazkak, adostu eta arau horietan jasotzea.
 7. Ez litzateke eraginkorra izango Itunaren Arbitraje Batzordeak Nafarroako Zerga Ogasunaren inguruan hartutako edozein erabaki, batzorde hori ez baitago Hitzarmenean jasota. Hitzarmenaren Arbitraje Batzordeak edo justizia auzitegiek soilik utzi dezakete indarrrik gabe Nafarroaren Zerga Ogasunaren erabaki bat.
 8. Amaitzeko, Nafarroako Gobernuak adierazten du gatazka administrazioarekiko auzibidean ebatzi behar dela.
3. Gipuzkoako Foru Aldundia ez dago Nafarroako Gobernuaren argudioekin ados, horregatik, alegazio idatzian, honako hau erantzuten du:
1. Ekonomia Itunaren 66. artikulua ez ditu Arbitraje Batzordearen jardura esparrutik kanpo uzten Nafarroako Foru Erkidegoaren inguruan sor daitezkeen gatazkak eta, ondorioz, erkidego hori manuan jasotzen den “beste edozein autonomia erkidego” espresioan sartu behar da.
 2. Ekonomia Ituna Estatuaren eta Euskadiren artean aplikatzerakoan, Nafarroako Foru Erkidegoa “Estatuaren” parte da (erregimen komuneko lurraldea) ondorio guztietarako, bai eta Arbitraje Batzordeari eskumenak esleitzeko ere.
 3. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak gogoratzen du, Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko Ekonomia Hitzarmenaren Arbitraje Batzordeak berak, apirilaren 4ko ebazpenean (17/2007 prozedura), hitzarmen horren 18.2 artikuluko “erregimen komuneko lurraldea” kontzeptuaren interpretazioaren inguruan sustatutako gatazka baten inguruan, adierazi zuela kontzeptu hori Nafarroako Foru Erkidegoa ez gainerako Espainiako lurralde osotzat hartu behar zela. Hori Euskadirekin duen Ekonomia Itunera eramanda, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldea ez den Espainiako lurralde guztia sartu behar da manu horretan eta, ondorioz, bai eta Nafarroako Foru Erkidegoa ere.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2009	R22/2011	2011/09/27	Nafarroako Foru Erkidegoa	Gipuzkoa Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

4. Nafarroako Gobernuak proposatzen du gatazka hau ebazteko administrazioarekiko auzibidera jotzea eta aukera hori Itunaren 67. artikularen azken paragrafoan jasotzen da, baina betiere Itunaren Arbitraje Batzordeak, ebazpen bidez, gatazka zuzenbidearen arabera kotzat jo ondoren.

4. Auzi hau ebazteko, Itunaren 66. Bat artikuluan xedatutakora jo behar dugu eta honako funtzio hauek esleitzen dizkio Arbitraje Batzordeari:

“a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo hauen eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak ebaztea, bai tributu itunduen lotura-puntuen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zerga edota Balio Erantsiaren gaineko Zerga administrazio bati baino gehiagori ordaindu behar zaionean.

b) Banako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea”.

5. Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren –2007ko abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua– 11. artikulua ere kontuan izan behar da, honako hau ezartzen baitu: “Foru-aldundiek, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailari jakinarazi ondoren, gatazkak sustatu ahal izango dituzte (...) b) Ekonomia Itunean bildutako arauen aplikazioa dela-eta, beren burua eskuduntzat jotzen ez dutenean, tributu jakin baten kudeaketari, likidazioari, bilketari, ikuskapenari edo berrikuspenari dagokionez, baldin eta tributu horri buruz Estatuko edo autonomia-erkidego bateko administrazioak aldeztan badu foru-aldundietako bat eskuduna dela prozedura horietan.”

6. Bestalde, Ekonomia Ituneko manu bakar batek ere ez du baztertzen Arbitraje Batzordeak Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Euskadiko foru aldundien arteko gatazkez

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2009	R22/2011	2011/09/27	Nafarroako Foru Erkidegoa	Gipuzkoa Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

arduratzeko eskumena duenik. Indarrean dagoen itunean, 1981eko maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onartutakoan bezalaxe, hasierako idazketan nahiz 1997ko abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak emandakoan, ezartzen du Arbitraje Batzordeak eskumena duela honetarako: “Banako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesatuen artean sor litezkeen auziak erabakitzea”. 66.Bat artikuluan b) letrak ez du argitzen zein izan behar duten gatazkako administrazioak, baina artikuluko bereko a) letran “Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo hauen eta beste autonomia erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren auziak” aipatzen baditu, ez dago arrazoirik –interpretazio logiko eta sistematikoa egiten bada– gatazketatik kanpo uzteko Euskadiko edozein lurralde historikoren eta Nafarroaren artean gertatutakoak.

7. Gure interpretazioa babesteko, Auzitegi Gorenaren 4196/2009 Epaia, 2009ko maiatzaren 26koa –365/2008 errekurtsioa– aipa daiteke, hain zuzen ere, Ekonomia Hitzarmenaren Arbitraje Batzordearen 2008ko apirilaren 4ko ebazpenari buruzkoa – Gipuzkoako Administrazioak bere alegazioetan aipatzen du–; epai horretatik ondorioztatzen da Hitzarmenaren ikuspegitik (edo, kasu honetan, Itunarenetik), gainerako autonomia erkidegoek, ondorio horietarako, tratamendu bera dutela.

8. Ondorioztatu dugunez Arbitraje Batzordeak baduela eskumenik gatazka ebazteko, hondoko auzia jorratu behar da orain, alegia, zehaztea zein administrazioek duen eskumena (ENTITATEA 1), S.L. entitateak 2008ko uztailaren 31ra arte egindako eragiketen BEZaren ondoriozko 67.299,42 euroak itzultzeko; egun horretara arte zerga egoitza Nafarroan izan zuen, Gipuzkoara aldatu zuen arte 2008ko abuztuaren 1etik aurrerako ondorioekin.

9. Benetan, eztabaidatzen ari garena da egoitza aldaketan kasuan BEZaren kuotak zatitu behar diren, eta horren inguruan, alegia, egoitza aldatzen denean, eta, horren inguruan, alegia, zerga kudeatzen duen administrazioa aldatzen denean ordaintzeke dauden BEZaren saldoak itzultzeko eskumenaren inguruan, eman ditu epaiak Auzitegi Gorenak (2010eko ekainaren 10eko epaia, gure 17/2008 espedienteari buruzkoa, eta 2010eko ekainaren 17ko epaia, gure 20/2008 espedienteari buruzkoa), eta zatitzearen alde azaldu

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
5/2009	R22/2011	2011/09/27	Nafarroako Foru Erkidegoa	Gipuzkoa Foru Aldundia	BEZ. Saldoen lekualdatzea. Zerga-egoitza aldaketa

da. Beraz, argi badago BEZaren ordainarazpena, egoitza aldatu zen arte Nafarroari zegokiola, horren ondorioak aztertu beharko dira. Beraz, BEZa ordainarazteko eskuduna Nafarroa bada, horri dagokio itzulketa egitea.

10. Nafarroako Gobernuak, Arbitraje Batzordeari 2011ko urtarrilaren 27an igorritako idatzian, adierazi zuen Foru Erkidegoko zerga administrazioak (ENTITATEA 1), S.L. entitateari itzuli dizkiola Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoak, 2008ko bigarren hiruhilekoari dagozkionak, bai eta urte berean egoitza aldatu zuen arte hirugarren hiruhilekoan egindako eragiketei zegozkien zenbatekoak ere. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazio idatzian adierazi duenez, baieztapen hori ez da frogatu espedientean.

Horrela, bada, baieztapen horretatik ezin da ondorioztatu, Gipuzkoako Foru Aldundiak nahi duen moduan, Nafarroako Foru Ogasunak bere uziaren aurrean amore ematen duenik, Nafarroako Zerga Ogasunak ez baitu berariaz amore eman, ezin delako espero jurisdikzioa onartzen ez dion instantzia batean adieraztea amore emate hori. Eta gatazka ere ezin da indargabetutzat jo xedearen ondoriozko gabeziagatik, ez baitago frogarik egiaztatzen duenik Nafarroako Zerga Ogasunak, baieztatzen duen moduan, entitateari itzuli dionik eztabaidatzen den zenbatekoa.

Horren arabera, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

Aitortzea Nafarroako Gobernuaren Zerga Administrazioak duela eskumena (ENTITATEA 1), S.L. (IFK: B----) entitateak aurkeztutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 2008ko hirugarren hiruhilekoari –uztailaren 31ra arte egindako eragiketei dagokie, egun horretan egoitza soziala Gipuzkoara aldatu zuelako– dagokion aitorten-likidazioa –67.299,42 euro itzultzeko emaitza– kudeatu, likidatu eta biltzeko; eta, ondorioz, Nafarroako Gobernuaren Zerga Administrazioak itzuli behar diola zenbateko hori (ENTITATEA 1), S.L. entitateari, ebazpen hau eman denean jada egin ez badu.